

## Koste estruktura:

Gure enpresa balioan oinarritutako negozioa da. **Enpresaren interes handiena** ez da kostuak minimizatzea, baizik eta **bezeroari eskaintzeko balioa sortzea** (beren **produktuen edo zerbitzuen kalitatea zainduz, marka, etab.**). Gainera, pertsonalizazio-maila handia eskaintzen dugu.

Negozioa hasteko hasierako inbertsio bat egin behar dugu beharrezkoak diren baliabideak erosteko. Inbertsio horren barruan **makinak, oihalak, langileen soldata, produkzioa egingo den tokia eta web gunea sortzea** sartuko genituzke.

Kostuen egiturarekin lortu behar duguna, **salmentekin eta egindako inbertsioen artean oreka bat lortzea da**, non salmentekin lortutako dirua **inbertitutakoa baino altuagoa da**.

Bi motatako kostuak dauzkagu:

- **Kostu finkoak:** bere prezioa **produkzioaren arabera aldatzen ez dutenak dira**. Gure enpresan, **makinen alokairua**, produkzioa martxan jarriko den **lekuaren alokairua**, **web gunearen mantenua eta langileen soldata** izango ziren kostu finkoak.
- Bestalde, **kostu aldakorrak produkzioaren arabera aldatzen direnak dira**. **Oihalen erosketak eta produktuaren garraioa** kostu honen barnean egongo lirateke. Produktuaren **eskaria igotzen bada produkzioa** igotzea behar da eta horrekin batera **oihala gehiago erosi eta oihala garraiatu**.

## Zeintzuk dira kosterik garrantzitsuenak?

Guk egindako inbertsio garrantzitsuena **oihalena** eta produktua sortzeko **makinariaren alokairua** izango litzateke, bi baliabide horiek ez baditugu ezin izango baitugu produkzioa martxan jarri.

Baliabidea:	Prezioa:
Josteko makinak	100€/hilabete
Mozteko makinak	300€/ hilabete
Erreziklatutako oihalak	7€-12€ metroko

Lokala	500 metro karratuko lokal bat alokatzea 2100€/hilabete
Web gunearen mantenua	35€ /hilabete
Belkroa	1,5€-2,5€/m
Haria	0,9€-2,20€ c/u/1000m
Langilea	1250€/hilabete
Langileen segurtasun soziala	250€-300€/langile bakoitzeko hileko
Furgoneta	1000€-1700€/hilabete
Telefono fijo	10€-14€/hilabete
Hornidura	180€-240€/hilabete
Mantenua	4000€-6000€/urte
Erregaia	180€-190€/hilabete

BEZ-a erositako serbitzu eta produktu guztiei gehituta dago. (%21)

Produktua **beste enpresa bati saltzearen kasuan koste gutxiago egongo lirateke**, izan ere, ez genuke, adibidez, web gunerik erabiliko.